

FITXA: 209 - GIPUZKOA - Proiektu esperimentalak: Gipuzkoak dituen erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileak, eragile ekonomiko eta sozialek bultzatutakoak.

Nori zuzendua: Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrian jasotako erronken barruan sartzen den proiektu esperimentalen bat sustatzen duten unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, udalek, mankomunitateek, garapen agentziek eta/edo interes ekonomikoko taldeek.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/03/18
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko martxoaren 3ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/18/c2601528.pdf>

Eragin eremuak: Tokiko Garapena eta Enplegua

Zenbatekoa: 420.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2024/03/19

Aurkezteko azken eguna: 2026/04/15
(12:00)

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen %100ekoa izan daiteke, eta, gehienez ere, 80.000 euro emango da proiektu bakoitzeko.

Gutxieneko zenbatekoa: 60.000,00 €

Laburpena

Gipuzkoaren eraldaketa sozial eta ekonomikorako lurraldeko eragileen dinamizazio prozesua aktibatzea da kontua, zenbait esparrutan eragingo duten proiektu praktikoei laguntza emanez, izaera berritzailea izanik erreferentzia izan daitezkeenak eta eragin biderkatzailea izango dutenak. Laguntza-ildo horren bidez, proiektuak eta ahaleginak lurraldearen lehentasunekin lerrokatu nahi dira, eta, horrela, erronkei aurre egin diezaieketen irtenbide berrien garapena eta hedapena bizkortu.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntzen helburu dira lankidetzazko berrikuntza-jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak, eta hauetara bideratuta daudenak:

- Gipuzkoan eraldaketa sozial eta ekonomikoa dinamizatzeko prozesua aktibatzea, horretarako elkarlanean oinarritutako proiektu multzo berritzaileen bitartez Gipuzkoako erronka estrategiko handiak abaguneetan eraldatzeko dinamikak sortuz.
- Eremu zehatzetan esku-hartzeko proiektu praktiko multzoa sortzea, garapen prozesuen izaera berritzailea izanik, gida bezala balio dezaketenak ondoren zabaldu, hedatu eta errepikatzeko.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kapital sozialari probetxu ateratze aldera eta praktikara bideratutako ikuspuntu integratzailearen bitartez, elkarlanean oinarritutako proiektu mota berriak eta ekimenak artikulatu.
- Agertoki praktikoa edo abian jartzeko bultzada erabakigarria behar duten proiektu berritzaileen alde egitea, horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesak, laguntza ekonomikoa, aginte zein elkarrizketa gaitasuna baliatuz.
- Jatorri askotariko eragile sozioekonomiko dinamizatzailerien identifikazio eta artikulazio dinamikak sortzea. Era berean, egituratutako partaidetza modu berriak eta elkarlan publiko-pribatuak bultzatu.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduketak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko irailaren 15era bitartean gauzatu beharko dira. Justifikazio-kontu partziala 2026ko azaroaren 13a baino lehen aurkeztu beharko da, eta jarduketaren gauzatze osoa egiaztatzeko azken kontua, berriz, 2027ko urriaren 15a baino lehen.